

2019. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2018ko urriaren 23an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2018/12/14. 240. zk.

UDAL AZOKAN ZERBITZUAK EMOTEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua: OINARRIA ETA IZAEREA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrita, udal honek udal azokan zerbitzuak emoteagaitiko tasea eskatuko dau.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA

Tasearen egitate ezargarria da zerbitzuak emotea eta administrazio jarduerak egitea, besteak beste, honako honeek:

- Azokako postuen administrazio emakidak.
- Postuak eskualdatzeko baimenak.
- Postuak esleitzea titularraren heriotza dala-eta.
- Osasun kontrola eta zerbitzua.
- Guztion erabilerako aldeak mantentzea.
- Aldi baterako postuak jarteko lizentziak eta beste aprobetxamendu batzuk.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Tasearen subjektu pasiboak dira, postu finkoen emakidadunak diren pertsona fisikoak edo juridikoak, aldi baterako postuak hartzen dituenak eta eskualdaketak eskatzen dituenak.

4. artikulua: TASA KUOTEA

1.- Honako modulu mota honeek kontuan hartuta kudeatuko da tasea:

- a) 1. motako moduluak: 9,61 m² ko postu finko itxi bakotxa, 1etik 37rainoko zenbakiakaz identifikatuak.
- b) 2. motako moduluak: Eskailera azpiko postu finko itxi bakotxa, 38 eta 39 zenbakiakaz identifikatuak.
- c) 3. motako moduluak: Mahai jarraituko postu finko bakotxa, 1etik 16raino zenbakiakaz identifikatuak.
- d) 4. motako moduluak: Biltegi erabilerarako zutabe tarteko azalera (3,15 x 1,83 = 5,76 m²)
- e) 5. motako moduluak: Hozkailu erabilerarako zutabe tarteko azalera (3,15 x 1,83 = 5,76 m²)

2.- Tasa kuotea ondorengo epigrafeetan jarritako zenbatekoa edo tarifa aplikatzearen emaitza izango da:

1. EPIGRAFEA: Moduluen hileko zenbatekoak:	2019 (€)
1.1.- 1. modulua	107,69 €
1.2.- 2. modulua	95,77 €
1.3.- 3. modulua	53,87 €
1.4.- 4. modulua	10,79 €
1.5.- 5. modulua	10,79 €
2. EPIGRAFEA: Mahaien erabilera metroko egunean:	
2.1.- Inguruko baserrietan ekoiztutako produktoak eta produktu ekologikoak saltzea	1,50 €
2.2.- Beste kasu guztietan	3,00 €
2.3.-2.1 edo 2.2 epigrafeetako produktoak ez diranak edo beste sektoreetako produktoak saltzea (jatekoak ez direnak)	6,40 €
3. EPIGRAFEA: Azokako postuen 5. urterako emakidak hilero	
3.1.- 1. modulua	25,00 €
3.2.- 2. modulua	21,91 €
3.3.- 3. modulua	10,29 €
3.4.- 4. modulua	2,59 €
3.5.- 5. modulua	2,59 €
4. EPIGRAFEA: Bizien arteko eskualdaketak:	
4.1.- 1. modulua	1.049,13 €
4.2.- 2. modulua	925,15 €
4.3.- 3. modulua	430,86 €
4.4.- 4. modulua	107,73 €
4.5.- 5. modulua	107,73 €
5. EPIGRAFEA: Postuko titularraren heriotzea dala-eta, jaubetzea eskualdatzea:	
5.1.- 1. modulua	927,02 €
5.2.- 2. modulua	812,58 €
5.3.- 3. modulua	381,46 €
5.4.- 4. modulua	95,38 €
5.5.- 5. modulua	87,56 €
6. EPIGRAFEA: Hutsik dagozan postuen aldi baterako lizentzia	
6.1- Aldi baterako lizentzia	30,00 €
7. EPIGRAFEA: Hutsik dagozan postuen aldibaterako erabilera egunean	
7.1- 1. modulua - postu finkoa	8,80 €
7.2- 2. modulua - eskilara azpiko postu finkoa	7,83 €
7.3,3. modulua - mahai metalikoa	7,00 €

5. artikulua: SORTZAPENA

Tasaren sortzapena kasuz-kasu honako hau izango da:

- a) 1. epigrafeko hileroko kuota: hileko lehen egunean
- b) 2., 4., 5., 6. eta 7. epigrafeetakoak : erabilerea, eskuz aldatzea edo lizentzia eskatzen dan momentuan.

6. artikulua: KITAPENA ETA ORDAINKETEA

- a) Behin era bateko edo besteko emakida burututa, hilean bertan erroldan alta emongo jako esleipendunari eta hileroko errolda bidez errezibozko kitapenak egingo dira.
- b) 2. epigrafeko erabilerei jagokezan eguneko kuotak azokako arduradunak kobratuko dauz zuzenean erabilera egunean.
- c) 4., 5., 6. eta 7. epigrafeetako kuotak Errenta sailak kitapena eginda jakinarazoko jake zergadunei.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatzak 2014ko urriaren 30ean egindako Osoko Bilkuran onartu dau.